

FUTBOLA

Kevin Richardsonek Aston Vilan jokatuako Atkinsonekin batera

Horrela Luis Garcia mexicarrak Realeko ateak zabalik ditu

Toshackek azkenean lortu du. Kevin Richardsonek ez du datorren urtean Realean jokatu. Donostiarrek Aston Vilarekin akordioa lortu dute, eta erdilariak Dalian Atkinsonekin jokatu du datorren urtean. Richardsonen iragarritako salmenta honek, Luis Garciari ateak zabaltu dizkio.

MIKEL ARRIETA / DONOSTIA

Richardsonek ez zuen gainontze-koekin entrenatu atzo. Honela mintzatzen zen Toshack entrenamendu ostean, «Richardson ukiturik dago, gainera jadanik Aston Vilarekin akordioa lortu dugu. Kevinek ez du datorren urtean gurekin jokatu, 75-80 milioiengatik traspasatu dugu». Horrela, azken hilabeteetan zurrumurru izan dena, egi bilakatu da.

Kevin Richardson gaur bertan abiatuko da Britainia Handira, eta bihar goizean azterketa medikua jasan ondoren, bihar arratsaldean edo astearte goizean sinatuko du Ron Atkinsonek zuzentzen duen Aston Vila taldearekin. Aurtengo denboraldian Richardstonek bost egun besterik ez ditu egin Realean.

GARCIAK ATEAK ZABALIK Kevin Richardstonek al-bistearen harira, Luis Garciaren fitxaketaren egoera aipatu zuen Toshackek atzoko entrenamenduaren ostean. «Luis Garciaren atzetik gabilta, eta horrek kale egiten baldin badu ez dugu beste izenik». Toshackek gertutik jarraitu du mexicarra azken hilabeteetan. Lehengo urtean Real Madridekin Mexicotik egin zuen itzulian gertutik ikusi ahal izan zuen aurrelaria. «Az-



Atkinson eta Richardstonek elkarrekin jokatu dute Aston Vilan.

ken urte honetan «eztanda» egin du, bera izan da goleatzaile nagusia».

John Benjamin Toshackek sakonki aztertu zuen momentu honetako egoera. Hasiera batean 33 milioiren truke eskuratzeko moduan egongo zirela uste zuten donostiarrak, «baina badirudi ez dela horrela». Universidad Autonoma taldearen jarrera onartu beharra dagoela esan zuen atzo galesak, «klausula baldin badu, Pumas taldeak bete dadin eskatzeko eskubidea du».

Toshackek ordea ez du etsi nahi.

Egoera ondo ezagutzen du, eta oraindik ere Luis Garcia fitxatzeko asmotan dabil. Pumas taldeak 200 milioiko kopurua ezarri du, Realak berriz 35 eskaini zituen hasiera batean. Toshackek, ordea, gauza interesgarriak esan zituen atzoko prentsaurrekoan, «jokalaria honekin arriskatu dezakegula uste dut. Hiru edo lau urtetan diru hori berreskuratzeko aukera izan dezakegu». Hasieran eskaintzen zituen 33 milioiak baino dexente gehiago ordaintzeko prest dago momentu honetan Reala.

Indurainen omenezko ekitaldiek Osasunaren aurkezpenera atzeratu dute

A.B. / IRUNEA


Osasunaren aurkezpenera atzeratzea erabaki zuten atzo talde gorritxoan mandatariek, eta astelehenean izan beharrean, astearte edo asteazkenean aurkeztuko da taldea zale-tuen aurrean. Atzerapenaren zioa, nola ez, Miguel Induraini egingo dizkioten harrera ofizialekin topo ez egitea da. Astelehenean, beraz, gorritik horira igaroko da Iruñea eta Nafarroa osoa.

Villanuako kontzentrazioa utzi eta asteleheneko arratsaldeko zapietarako deitu zituzten lehendabiziko taldearen partaide guztiak, zale-tuen aurrean ohizkoa den aurkezpenarako. Bertan, aurpegi berriak eza-gutu eta urteroko helburu eta plan-gintzak zehazteaz gain, hasiera ematen zaio ofizialki denboraldiari, jokalariek jadanik hogeit bat egun

saiotetan eman badute ere.

Hala ere, Zabaltzak prestatu egitarauan ez omen zegoen aurrikusita Atarrabiakoak Frantzia aldean egin duen lan bikaina, eta bi ekitaldiak elkarrekin egitea baztertu dute azkenean. Izan ere, Atarrabiako Udalak harrera ofiziala egingo dio txirrindulariari astelehenean bertan, eta asteazkenean, Diputazioaren ohoreak jasotzeko aukera izango du. Hau dela kausa, eta kontutan hartuta Iruñean dagoen ikusmin eta giroa Banestoko txirrindulariarekin, astearte edo asteazkenean izango da gorritxoaren aurkezpenera.

Bestalde, Martin Gonzalezen lesioa hogeit egunetakoa baino ez da izango, taldeko sendagileek adierazi zuten. Hasiera batean hilabeteak izango zela iragarri bazen ere, hiru aste izango du eskumuturra eskaio-laz babesturik erdilari madrildarrak,



Fermin Ezkurra.

baina heldu den astean entrenamenduetan parte hartu ahal izango du seguruenik. Ez ditu jokatu, ordea, Osasunak iragarritako dauzkan datozen partiduetan.

ARRAUNA



Arraun Lagunak estropada handia jokatu zuen.

Arraun Lagunak nagusitu zen Getxoko lehen ihardunaldian

RAMON BASALDUA / GETXO

Donostiako Arraun Lagunak lortu zuen atzo denborarik onena Abran jokatuako Getxoko Banderaren lehen ihardunaldian. Segundu bakar bat atera zion Lugañene traineruak Juan Mari Lujanbiok zuzentzen duen Errekari eta bi besterik ez, atzo Claudio Etxebarriak zuzendu zuen Orioko San Nikolas traineruari. Denbora hauek ikusirik, gaur, arratsaldeko seietatik aurrera jokatu den estropadan erabakiko da Getxoko Banderaren irabazlea.

Lutxanako Ederra traineruak ez zuen inolako zailtasunik izan lehen txandan nagusitzeko, berarekin batera ekin zioten Portugaleteri, Isuntzari, Raspasi eta Deustuko bilbotarra ontziari. Garaipena lortzeaz gain, gaur bigarren txandan aritzeko eskubidea lortu dute Iñaki Aginagak zu-

zentzen dituen mutilek. Jose Luis Kortak entrenatzen duen Oriok ere ez zuen areririk izan bigarren txandan eta hasiera hasieratik hartu zion aurrea, Santurtzi, Algorta, Hondarribia eta Arkote-Bermeori. Azpimarratzekoa benetan, Pedro Mari Abandoren mutilek egindako estropada txarra.

Hirugarren txanda izan zen ikusgarriena zalantzarik gabe. Pasai Donibane zen faboritua baina Donostiako Arraun Lagunak, edonor menperatzeko gai dela frogatu zuen atzo. Lugañene eta Errekak sekulako lehia izan zuten lehen zibogatik. Lehen bi zibogetan donostiarrak nagusitu ziren arren, Errekak aurrea hartu zuen azken luzean.

Dena den Asier Lopezen mutilek ez zuten amore eman eta segundu bateko aldea atera zioten Errekari helmugan.

SASKIBALOIA

Gipuzkoako saskibaloit taldeek bat egin dute Askatuakekin

DONOSTIA

Bigarren mailan diharduten Gipuzkoako saskibaloit taldeek bat egin dute Donostiako Askatuak taldearekin. Arrasate, Goierri, Andraitx, Iraurgi, Irun, Atletico San Sebastian, Ordizia, Juven eta Easo taldeek ezinbestekoa ikusi dute Askatuak taldeak lehen mailari eustea.

Mikel Galdona-k, Askatuakeko gerenteak, babes proposamena egin zion Gipuzkoako Kutzari ostiralean. Donostiako taldea, arazo ekonomikoak medio, kategoriatik galtzeko zorian dago. Bazkideen proposamenez, gida batzordea azken deia egin dio Gipuzkoako Kutzari.

Iñaki Almandozek zuzentzen duen taldea ez dago bakarrik. Gipuzkoako taldeek ezinbestekoa ikusten dute Askatuak taldea laguntzea, eta horregatik bat egin dute donostiarrak Kutzari eta instituzioei egin dieten eskaerarekin.

EASO TALDEAREN JARRERA

Donostiako Easo Muebles Martin taldearen jarrera elkartasun honen lekuko da. Donostiarrak Askatuakekin batera B mailan jokatzeko aukera zuten lehen, lehengo urtean bigarren mailako txapeldun izan bait ziren. Arazo ekonomikoak medio, aukera horri uko egin zioten. Garai hartan kaleratutako idatzian, zergatiak azaltzeaz gain, Askatuak taldea laguntzea ezinbestekoa zela azaldu zuten Muebles Martin taldeko kideek.

Momentu honetan, ordea, gauzak guztiz okertu dira. Muebles Martin taldeak jadanik uko egin zion mailari, eta orain Askatuak egoera berean dago. Gakoa Gipuzkoako Kutzak du orain. Donostiako taldeak konfidantza handia du Kutzarengan, eta abuztuaren 5a baino lehen, Askatuak mailari eusteko duen azken aukera, baieztatu erantzuna emango dutelako esperantza dute.